

ZERBITZUEN KOIUNTURAKO INDIZEA

Deskribapen metodologikoa

2019ko martxoa

Zerbitzuen Koiunturako Indizearen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko eta bere lurralde historikoetako Zerbitzuen sektoreko salmenten eta langileria landunaren bilakaerari buruzko koiunturako indize bat lortzea. Zerbitzuen sektore osoari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen du, beraz, hiru hilerik behin.

Indizeen oinarri-urtea 2015. urtea da, eta 2010. urteko lehenengo hiruhilekorako lortu dira indizeak lehenengo aldiz.

1. Zerbitzuen Koiunturako Indizearen eremua

1.1 Biztanleria-eremua

Zerbitzuen Koiunturako Indizearen biztanleria-eremuan sartzen dira merkataritza sektorea; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza; informazioa eta komunikazioak; jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, eta administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak. Horiek guztiak, alabaina, NACE 2. ber. (JESN 2009) dokumentuan sailkatuta egon behar dira behean adierazi bezala:

- A. **Merkataritza:** jarduera nagusia handizkako merkataritza (46. mota), txikizkako merkataritza (47. mota) edo ibilgailuen eta motozikleten salmenta eta konponketa (45. mota) duten establezimenduak.
- B. **Bestelako zerbitzuak:** Jarduera nagusia garraioa eta biltegiatzea (H atala), ostalaritza (I atala), informazioa eta komunikazioak (J atala), jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (M atalaren zati bat) edo administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (N atalaren zati bat) duten establezimenduak.

Sekzioen sektorizazio berezi bat egin da JESN 2009tik abiatuta, Europa mailako emaitza alderagarriak lortzeko asmoz, nahiz eta aldi berean onartu egin den Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko berezitasun batzuk eranstea.

1.2. Lurralde-eremua

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan eta bere lurralde historikoetan sartuta dauden estatistika-unitateak, nahiz eta haien egoitza soziala edo gerentzia handik kanpo dagoen.

1.3. Denbora-eremua

Erreferentzia-aldia hiruhileko naturala da.

3. Estatistika-unitatea

Estatistika-unitatetzat erabiltzen da jarduera ekonomiko nagusitzat biztanleria-eremuan sartuta dagoenetako bat egiten duena, betiere erreferentzia-aldian eta dagokion lurralde-eremuan jarduera izan duena.

4. Aztergai diren aldagaiak

Zerbitzuen Koiunturako Indizean aztergai diren aldagaiak honako hauek dira:

a. Salmenten ziozko sarrerak.

Enpresaren fakturazio osoa hartzen da Euskal Autonomia Erkidegoan eta bere lurralde historikoetan egindako “salmenten ziozko sarrera” gisa. Enpresak zerbitzuak eskaintzeagatik edota ondasunak saltzeagatik fakturatu dituen zenbatekoak jasotzen ditu, enpresaren trafikoaren xede badira, bai eta azpikontratazioaren ondoriozkoak ere.

Honakoak ere sartzen dira: paketeak egiteagatik eta garraioagatik fakturatzen diren gastuak; jasotako baldintza berberetan birsaltzeko erosi diren ondasunen salmenta eta azpiproduktuen salmentak. Bai eta soilik azpikontratazioaren ondoriozkoak diren eta hirugarrenei fakturatu zaizkien lan egindako orduak ere.

Ondasunei eta zerbitzuei ezarritako zergak eransten dira, bezeroari egotzitako BEZa izan ezik.

Alabaina, ez dira multzo honetan sartzen agintari publikoek edo Europar Batasunak emandako diru-laguntzak, finantza errentak eta bestelako errenta operatiboak (sorospenak, akzioen salmenta eta aktibo finkoen salmenta, korrituen ziozko sarrerak, dibidenduak eta patenteak, enpresaren jabetzen errentamenduak eta ekoizpen unitateen eta makinaren errentamenduak). Ez eta langileentzako erraztasunen ziozko sarrerak (jantokiak...) eta behatzeko unitate barruan ondasunak eta zerbitzuak hornitzea ere.

b. Langileria landuna.

“Langileria landun”tzat ulertzen da enpresan dagokion lurralde-eremuan, erreferentziako hiruhilekoan, zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonen batez bestekoa. Egiten duten lanagatik ordainsariren bat jasotzen duten norbanakoak dira langileria landuna, enpresarekin edozein motatako kontratu-harremana (finkoa, behin-behinekoa, lan-jardunaldi osokoa edo zati batekoa) dutela ere. Orobat “langileria landun”tzat jotzen dira jabeak eta familiako laguntzaileak, gutxienez lan-jardunaldiaren herenaz lan egiten baldin badute. Kanpoan uzten dira, hala ere, komisio truke lan egiten duten langileak.

5. Laginketa-plana eta lagin-diseinua

5.1 Inkestaren esparrua

Inkestaren esparru gisa Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID) erabili da, zeinak enpresen eta haien establezimenduen jarduera ekonomiko nagusiari eta langileria landunaren kopuruari buruzko informazioa biltzen baitu.

5.2 Lagin-diseinua

Laginketa orohartzaile bat egin da Euskal Autonomia Erkidegoko 50 enplegatu edo gehiagoko enpresa guztietan eta hiru lurralde historikoetan establezimenduak dauzkaten 10 eta 50 enplegatu arteko enpresetan.

Lagina, guztira, 1.130 unitateraino osatzen da, eta hiru etapatan geruzaturiko ausazko laginketa bat egin da, geruzapenerako aldagai gisa honako hauek erabilia: lurralde historikoa, enplegu-geruza eta jarduera ekonomikoa.

- Lurralde historiko bakoitzaren establezimendu kopuruaren erro karratuarekiko proportziosko esleipena.
- Enplegu-geruza bakoitzeko establezimendu kopuruaren erro kubikoarekiko proportziosko esleipena.
- Neyman-en esleipen hoberena jarduera ekonomikoaren arabera.

Laginaren tamainak Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko indize adierazgarri batzuk lortzea ahalbidetzen du C sektorizazio mailan, eta lurralde historikoei buruz B sektorizazio maila, Zerbitzu sektorearen sektorizazio berezian.

6. Oinarri-urtea

Zerbitzuen Koiunturako Indizearen oinarri-urtea 2015. urtea da, eta horrek esan nahi du indizeen eransketarako erabiltzen diren ponderazioak 2015. urteari buruzko egiturazko informaziotik abiatuta lorturikoak direla.

Zerbitzuen Koiunturako Indizean sartutako indize guztietarako erreferentzia-urte gisa ere 2015. urtea aukeratu dugu.

7. Indizeen kalkulua

7.1 Indize sinpleak lurralde historikoa

Jarraian azaldu bezala eskuratzen dira JESN 2009 Motaren mailako indize sinpleak lurralde historiko bakoitzerako, “Salmenten ziozko sarrerak” aldagairako (eguneko prezio konstanteetan¹) eta “Langileria landuna” aldagairako (aurrerantzean “X” izen generikoa izango dute):

1. 2015. urtean:

¹ Prezio konstanteetan egindako “Salmenten ziozko sarrerak” enpresek emandako egungo prezioetan egindako “Salmenten ziozko sarrerei” hiru hileko prezioen indizeak aplikatuz eskuratzen dira.

$$ISX_t = \frac{\sum X_t}{\bar{X}_{2015}} 100,$$

non \bar{X}_{2015} X-en 2015 oinarri-urteko batez bestekoa den.

2. 2016. urtetik aurrera:

$$ISX_t = ISX_{t-1} \frac{\sum X_t}{\sum X_{t-1}},$$

non X_t eta X_{t-1} enpresa komunetan neurtuta dauden t-n eta t-1-en (lurrealde historiko horretan duela jarduera, bai t-n eta bai t-1-en).

7.2 Indize sinpleak Euskal Autonomia Erkidego osorako

Euskal Autonomia Erkidego osorako indize sinpleak lortzeko, lurrealde historikoetako indize sinpleen konbinazio lineala egin behar da, 2015 oinarri-urteari dagozkion egitura-haztapenak erabiliz.

7.3 Indize konposatuak lurrealde historikoka

L, C, B, A sektorizazioen indize konposatuak eta Zerbitzuen Koiunturako Indizea lortzeko, hurrengo beheragoko mailan dagoen sektorizazioaren indizeen konbinazio lineala egin behar da (bereizketa handiagoa), kasuan kasu 2015 oinarri-urteari dagozkion egitura-haztapenak erabiliz.

7.4 Indize konposatuak Euskal Autonomia Erkidego osorako

Euskal Autonomia Erkidego osorako L, C, B, A sektorizazioen indize konposatuak eta Zerbitzuen Koiunturako Indizea lortzeko, dagozkion sektorizazioaren lurrealde historikoetako indizeen konbinazio lineala egin behar da, 2015 oinarri-urteari dagozkion egitura-haztapenak erabiliz.

8. Zuzenketa eta indizeen urtarokotasuna

Indize guztietan egutegiko ondorioak zuzentzen dira, eta urtarokotasuna iraultzen zaie, denboran zehar konparatu ahal izan daitezten. Egutegiko ondorioak zuzenduta dituzten indizeak homogeenok dira urte arteko aldiak, eta urtarokotasuna iraulita duten indizeak homogeenok dira bai hiruhilekoen arteko bai urte arteko aldietan.

Egutegi-eraginetako serie doituak eta urtaroen eraginetako serie doituak 2015. oinarri-urtetik JDemetra+ 2.2.1 softwarearen bidez lortzen dira, Eurostaten gomendioei kasu eginez urtaroen doikuntzak eta egutegikoak egiteko Europar Batasuneko estatistika ofizialetan.

